

"AMETS ERRADIKAL BAT DUT"



Nagore Irazustabarrena

Uranga

@irazustabarrena

Washington (AEB), 1963ko abuztuaren 28a. Martin Luther Kingek *Amets bat dut* hitzaldi ezaguna bota zuen. Hitzaldi horretan oinarritzen da edo, hobe esanda, hitzaldi horretara mugatzen dute gehienek hark utzitako ondarea. Indarkeriarik ezaren aterkipean babestutako diskurtso moderatua zen, beltzentzako eskubide zibilak eskatzera mugatzen zena –eta ez da gutxi–, “amets amerikarrarekin” bateragarria, Malcolm X edo Pantera Beltzen diskurtso erradikalaren aldean, “onargariagoa”.

1967ko apirilaren 4an, hil baino urtebete lehenago juxtu, New Yorken hitzaldi bat eman zuen Kingek 3.000 pertsonen aurrean. Vietnamgo gerra gogor kritikatu zuen orduko hartan, gatazkaren amaieraren nondik-norakoak AEB ahalguztidunearan oraindik susmatzen ez zirenean. “Gure gizarteak jipoitutako gazte beltzak hartu eta etxetik 8.000 miliatara bidali ditugu, Georgia hegoaldean edo Harlemen ez dituzten eskubideak Asiako hego-ekialdean bermatzeko. Mutil beltzak eta zuriak elkarrekin hiltzen ikusten ditugu, eskola berdinean elkarrekin esertzen uzten ez dien nazio baten izenean. Elkartasun bortitzean ikusten ditugu herrixka txiro bateko etxolak erretzen, baina konturatzeko gara ez lirakekeela sekula Detroiten



UNDERWOOD ARCHIVES

Mississippiko polizia Martin Luther Kingi bultzaka, Beldurraren Aurkako Martxan, 1966ko ekainean.

etxe-bloke berean biziko. Ezin dut isildu pobreen halako manipulazio basatiaren aurrean”. Arrazismoaz harago, kolore guztietako pobrezia zuen jomuga.

Eta indarkeriarik ezaren ideia zabalteko ere baliatu zuen Vietnam: “Ezingo nuke ghettoetako zapalduak erabiltzen duten indarkeriaren aurka egin, lehenago, argi eta garbi, egungo munduko indarkeria hornitzaile nagusiaren aurka egin gabe: nire gobernu bera”. Urtez urte, aurrekontu militarrean gizarte programetan baino diru gehiago xahutzen duen herrialdea “heriotza espiritualera hurbiltzen” ari zela gaineratu zuen. “Makinak, ordenagailuak, eteki-

nak eta jabetza eskubideak pertsonak baino garrantzitsuagoak diren bitartean, ez gara gai izango arrazismoak, materialismoak eta militarismoak osatzen duten hirukote erraldoia gainditzeko”.

Une horretan, prentsak gogor kritikatu eta iraindu zuen King hitz horiengatik. Gero, hitzok isilaraziko zituzten. Eta azken hilabetean, hil zutenetik 50 urte bete diren aitzakian, hedabide gehienek Martin Luther Kingen ideia antikapitalista garbiak baztertu dituzte berriro ere, ekintzailearen bertsio edulkoratua, publiko guztientzako kontsumigarria, saltzen jarraitzeko. ■



JAPAN TIMES

Zuhaitzak gerraz gogoratzen dira

1944ko azaroaren 12an Tirpitz ontzi alemaniarra bonbardatu eta hondoratu zuten britainiarrek Norvegiako fiordoetan, argazkian ikusten den moduan. Hain zuzen, horrelako erasoak saihesteko asmoz, alemaniarrek laino artifiziala sortzeko kanoiak erabili zituzten ia bi urtez. Laino kimiko horrek azido klorosulfurikoa zeukan, substantzia oso korrosiboa. Orain,

Mainzeko (Alemania) Johannes Gutenberg unibertsitateko ikerlariak ontzia ainguratuta egon zen inguruko zuhaitzen hazkunde-eraztunak aztertu dituzte: 1943 eta 1944 urteetan eraztunak ia desagertu ziren eta zuhaitzek 12 urte behar izan zituzten bere onera etortzeko. Bigarren Mundu Gerraren kalteak ezin susmatuzko tokietan topatzen dira oraindik. ■